

JASANGARRITASUN TXOSTENA **T24-25**

Informazio ez-finantzarioaren egoera





0/ **Presidentearen gutuna** *(4)*

1/ **Kluba** *(5)*

- 1. Kluba zenbakitan *(6)*
- 2. Materialtasunaren analisia *(7)*
 - a. Interes taldeak
 - b. Gai materialak
- 3. Negozio eredua *(10)*
 - a. Erakundearen profila
 - i. Jarduerak (kirolekoak eta kirolekoak ez direnak)
 - b. Balioak
 - c. Nortasuna
 - d. Plan eta proiektu estrategikoak
 - e. Impulso Plana
 - f. Arriskuen kudeaketa
 - g. Negozio zifra

2/ **Pertsonak** *(21)*

- 4. Egitura eta organigrama *(22)*
 - a. SD Eibarren organigrama
 - b. Ipurua Kirol Fundazioaren organigrama
 - c. Batzordeak

- 5. Pertsonen kudeaketa *(27)*
 - a. Lanaren antolaketa
 - i. Enplegua
 - ii. Ordainsaria
 - b. Giza baliabideetako politikak
 - c. Harreman sozialak
 - d. Berdintasuna
 - e. Segurtasuna eta osasuna
 - i. Laneko arriskuen prebentzioa
 - ii. Urteko azterketa

3/ **Gobernu ona** *(30)*

- 6. Betetze eta barne kontroleko arloa *(31)*
 - a. Compliancea
 - b. Kode etikoa
 - c. Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako protokoloa
 - d. Kanal etikoa
 - e. Gardentasuna
 - f. Giza eskubideak
 - g. Datuen babesa

4/ **Ingurumena** *(33)*

- 7. Ingurumen ekintzak *(34)*
 - a. Kontsumoak
 - b. Karbono aztarnaren neurketa
 - c. Ingurumen ekintzen plana
 - d. Ingurumen arloko betetzea

5/ **Gizartea eta ingurunea** *(36)*

- 8. Politika sozialak *(37)*
 - a. Ipurua Kirol Fundazioa
 - b. Ekimen nagusiak
- 9. Hornitzaileak eta azpikontratistak *(39)*
 - a. Hornitzaileak
 - b. Tokiko garapena bultzatzea
- 10. Bezeroak eta kontsumitzaileak *(40)*

6/ **Reportinga** *(41)*

- 11. Txosten honi buruz *(42)*
- 12. Ziurtagiriak *(43)*
- 13. Informazio fiskala *(43)*
- 14. GRI edukien aurkibidea *(44)*



Presidentearen
gutuna



GRI 102-14 Erabakiak hartzeko
ardura duten goi mailako
exekutiboen deklarazioa

AKZIODUN agurgarria,

Gure klubaren azken aldiko bidea emozioen, erronken eta lorpenen nahasketa batek markatu du, eta horrek proiektu partekatu honen handitasuna gogorarazten digu. Denboraldi bakoitzak ikasteko, hazteko eta berriro ilusionatzeko arrazoiak ematen dizkigu, eta atzean utzi berri duguna ez da salbuespena izan.

Testuinguru horretan, bada albiste bat gure historiaren iragana eta geroa bereizten duen mugarri izan dena: Areitio kirol hiria errealitate bat da jadanik. Gizonezkoen lehen taldearentzako azken eraikina amaitzeke dago oraindik, eta horrek inaugurazio ofiziala atzeratu du, baina itxaronaldi hori baikortasunez hartu dugu. Instalazio berrietarako trantsizioa modu natural eta ordenatuan egiteko aukera eman digu. Gaur egun harrotasunez esan dezakegu Areitio bizirik dagoela, erabat eraginkorra dela eta bertan entrenatzen eta lehiatzen direla gure oraina eta gure etorkizuna.

Proiektu hau ez da pauso huts bat, jauzi kualitatibo bat baizik. Duela urte batzuk Ipuruan egindako handitzearekin batera, klubak bere historian egin duen egiturazko apustu handiena da. Orain, lehen mailako ondare propio bat izateaz gain, klubaren funtsa biltzen duen etxea ere badugu: errendimendu handiko espazio bat, entitate gisa sendotzen eta gure asmoak datozen urteetara proiektatzen laguntzen diguna. Harro egon gaitezke mugarri kolektibo hori lortu dugulako, armaginen familia osoaren ahaleginaren, ikuspegiaren eta iraunkortasunaren ondorioz.

Kirol arloan, denboraldiak emozio biziak eta ikaskuntza baliotsuak utzi dizkigu berriro ere. Azken hamabost urteetan lehen aldiz aulkian aldaketa bat egin behar izan genuen; Joseba Etxeberriaren irteeraz ari gara. Maitasun eta errespetu handia diogu entrenatzaile horri. Zerbait negatiboa baino gehiago, horrek positiboki hitz egiten du SD Eibarren egonkortasunaz eta haren tratu bereizgarriaz, horren aldakorra eta ezegonkorra den ingurune batean.

Kategoriaren zailtasunak eta aurkarien kalitateak erabaki hori hartzera eramangintuen eta, azkenean, ilusioaitzulizen lporuara. Beñat San Joseren etorrerari esker, taldeak bere funtsarekin bat egin zuen, eta jaitsiera postuetatik gertu egon ondoren, merezimenduzko bederatzigarren postua lortu genuen. Ikasturtea ixtean izan ditugun sentsazioak orainera ekarri ditugu eta gaur ilusio berrituarekin eta gure nortasun ezaugarriei leial eutsiz ekin diogu etapa berriari.

Aldatzeko eta hobera egiteko espiritu hori gure zaleengan ere islatu zen, izan ere, zaleak leial agertu dira zailtasunean, eta baikortasunez hartu dute taldearen norabide berria.

Aldi berean, emakumezkoen lehen taldeak historiako sailkapenik onena lortu zuen maila gorenean. Zorionak! Balentria horren arduradun nagusiek erronka profesional berriei ekitea erabaki zuten; hori dela eta, Rocio Candal eta Iñaki Goikoetxea kirol zuzendaritzara eta aulkira iritsi eta ilusioz betetako etapa berri bati ekin genion.

Era berean, ezin dugu ahaztu gure filialek -bai gizonezkoek bai emakumezkoek- egindakoa. Kategoria berrietan egindako debutean denboraldi bikainak egin dituzte: emakumezkoek sendotasunez ziurtatu zuten Bigarren Federazioan jarraitzea eta gizonezkoek Lehen Federaziora igotzeko playoff-a jokatu zuten.

Gainera, jubenilen kategorian, SD Eibarrek Ohorezko Mailan lehiatzen jarraitzen du, hots, askok futbol profesionalaren atarikotzat jotzen duten kategorian. Eraitza horiek, Areitio gauzatzearekin batera, gure harrobiaren osasun ona eta armaginen futbolaren hazkunde iraunkorra islatzen dute.

Arlo ekonomikoan, klub sendo eta arduratsua izaten jarraitzen dugu. Maila gorenera itzultzeko egindako aparteko ahaleginak utzitako errealitate berria onartu ondoren, kirol anbizioari eusten diogu, bereizten gaituen egonkortasuna arriskuan jarri gabe eutsi ere.

Aldi berean, SD Eibar Fundazioak klubaren eta gure ingurunearen arteko harremanak estutzen jarraitzen du. Euskararen Baloia, udako campusa, futbol egokitua eta halako proiektuek gure balio tradizionalak indartzen dituzte eta klub baten handitasuna bere konpromiso sozialaren arabera neurtzen dela gogorarazten digute.

Ilusioz eta harrotasunez begiratzen diogu etorkizunari. Dagoeneko martxan dagoen Areitio kirol hiria, elkarrekin eraikitzeko gai garenaren sinbolorik onena da. Orain, bizitzaz, arrakastaz eta SD Eibar are handiago egingo duten istorioz betetzea dagokigu. Eta beti bezala, kluba osatzen dugunon ahalegin partekatuarekin egingo dugu.

Eskerrik asko.


Amaia Gorostiza Telleria
PRESIDENTEA




Kluba




1. **KLUBA**
ZENBAKITAN

TALDEAK			
PROFESIONALAK		Gizonezkoen 1. taldea	
EIBAR B		Giz. talde 1 Emak. talde 1	
OINARRI FUTBOLA		8 3	giz. emak.
FUTBOL INKLUSIBOA		Genuine talde 1 Garun paralis. talde 1	
TALDEA		Giz. beteranoen talde 1	
FUTBOL ESKOLA		mut. 144	nesk. 39



YOUTUBE: SARE SOZIALA GORAKADA HANDIENA	Denboraldi hasiera	10 K
	Denboraldi amaiera	208 K





2. MATERIALTASUNAREN ANALISIA

a. Interes taldeak

GRI 102-40 Interes taldeen zerrenda

		TALDEA	DESKRIBAPENA	KOMUNIKAZIO KANALA
Barrukoak	Barruko interes taldetzat hartzen dira SD Eibarren barruan lan egiten duten edo botere exekutiboa daukaten pertsona guztiak.	Akziodunen Batzar Nagusia	SD Eibarren gobernu organo goren.	Akziodunen Batzar Nagusian bertan, akziodunek Administrazio Kontseilura jo dezakete, hitz egiteko txandaren bidez.
		Akziodunak	Klubaren akzioak eskuratu dituzten pertsonak.	Bazkidearen eta abonatuaren arretarako bulegoaren eta telefono eta posta ofizialen bidez, eta Akziodunen Batzar Nagusian.
		Administrazio Kontseilua	Akziodunen Batzar Nagusian izendatutako administrazio organo goren. Araua Betetzeko Programa eta Eroskeriaren kontrako eta Compliance Penaleko kudeaketa sistemen funtsezko dokumentazioa onartzen ditu.	Hileroko bilerak.
		Kudeaketa Arloa	Zuzendaritza taldea, zuzendaritzako eta eguneroko kudeaketako kargua eta langile arruntak biltzen ditu.	Bilerak astero arloko zuzendaritzekin.
		Kirol Arloa	Kirol zuzendaritza, idazkaritza teknikoa, emakumezkoen futbola eta beheargoko mailetakoa biltzen ditu.	Departamentuen bilerak.
		Fundazioa	Patronatua, fundazioaren zuzendaritza eta langileak biltzen ditu.	Bilerak batzordeka.
Kanpokoak	Kanpoko interes taldetzat hartzen dira klubarekiko harremanagatik edo lurralde hurbiltasunagatik normalean interakzioan dauden erakunde, elkarte eta instituzio guztiak; kanpoko interes taldeak dira, halaber, Eibarren jarraitzaile guztiak.	Hornitzaileak	Funtzio jakin batzuk betetzeko kontratatutako hirugarren pertsonak.	Haiekin egindako transakzio eta zerbitzuetan.
		Babesleak	Enpresa edo marka iragarleak.	Abegi oneko ekitaldiak eta kontratu akordioetarako bilerak.
		Erlazionatutako enpresak	VIP palkoetan eserlekuak eskuratzen dituzten beste enpresa batzuk, pribatuak edo gure espazioetan ekitaldiak egiten dituztenak.	Abegi oneko ekitaldiak eta kontratu akordioetarako bilerak.
		Administrazio publikoa	Erakunde publikoak: Eibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza.	Alderdiei eragiten dieten gaiak aztertze bilerak.
		Kirol erakundeak	Futbol profesionala arautzen duten erakundeak: Gipuzkoako Futbol Federazioa, Euskadiko Futbol Federazioa, Espainiako Futbol Federazioa, Laliga, CSD...	Erakundeok antolatutako bilerak. Alderdiei eragiten dieten gaiak aztertze bilerak.
		Abonuak	Partidetara joateko denboraldiko abonauak eskuratzen dituzten pertsonak.	Bazkidearen eta abonatuaren arretarako bulegoaren eta klubeko telefono eta posta ofizialen bidez.
		Jarraitzaileak eta zaleak	Lagun taldeak eta klubaren jarraitzaile guztiak.	"Kluba-lagun taldeak" lotura egiten duen pertsonaren posta elektronikoaren bidez.



c. Gai materialak

Klubaren ESK batzordea, Fundazioak kudeatzen duena, erakundearen jasangarritasunari buruzko erabaki guztiei laguntzera bideratuta dago. Batzorde horrek klubaren gai materialak landu ditu, estatuko eta munduko futbolean erreferentzia diren erakundeek aurkezten dituzten gaiak erreferentziazat hartuta.

Hola, LaLigak, UEFAk eta FIFAk honako hauek hartzen dituzte gai materialtzat:

LALIGA

INGURUMENA	GOBERNANTZA	GAI SOZIALAK
CO ² emisioak Hondakinak Birziklatzea Ura Eraikuntza jasangarria Energia eraginkortasuna Ingurumen kontzientzia	Enpresa etika Gobernu ona Informazio gardentasuna Legeak eta zergak betetzea Kontrol ekonomikoa Hornitzaileen kudeaketa Gobernantza instituzionala Kontuak ematea	Berdintasuna eta inklusioa Irisgarritasuna Langileen osasuna eta ongizatea Ekitaldietako segurtasuna Prestakuntza eta garapen profesionala Proiektu sozialak Tokiko inpaktua Dibertsitatea eta diskriminaziorik eza



FIFA

INGURUMENA	GOBERNANTZA	GAI SOZIALAK
BEG isuriak Karbono aztarna Airearen kalitatea Uraren kontserbazioa Hondakinen kudeaketa Ekonomia zirkularra Eraikuntza jasangarria Azpiegitura “berdea”	Gardentasuna eta kontuak ematea Erosketa jasangarriak Jasangarritasun gobernantza Legea betetzea Ustelkeriaren aurka ESG txostena	Lan eskubideak Lan baldintzak Bidezko erreklutamendua Erremedioetarako sarbidea Irisgarritasuna Inklusioa eta dibertsitatea Osasuna eta segurtasuna Kazetarien eta aktibisten babesa Gazteen hezkuntza eta ahalduntzea Tabakorik gabeko guneak Tokiko garapena/enplegua

UEFA

INGURUMENA	GOBERNANTZA	GAI SOZIALAK
Ekintza klimatikoa Ekonomia zirkularra Energia eta eraginkortasuna Ura Jasangarritasuna estadioetan eta ekitaldietan	Jasangarritasunari buruzko hezkuntza eta kultura Etika eta osotasuna Kontuak ematea Erosketa arduratsuak Elkarrizketa <i>stakeholder</i> -ekin ESG txostenak eta adierazleak	Arrazismoaren aurka Berdintasuna eta inklusioa Haurren eta gazteen babesa Irisgarritasun unibertsala Osasuna eta ongizatea Errefuxiatuentzako laguntza Elkartasuna eta eskubideak Gaitasun guztietarako futbola



3. NEGOZIO EREDUA

a. Erakundearen profila

GRI 102-1 Erakundearen izena

GRI 102-5 Jabetza eta forma juridikoa

Sociedad Deportiva Eibar, SAD 1940ko urtarrilaren 1ean sortu zen kirol elkarte gisa, eta Eusko Jaurlaritzaren urriaren 8ko 306/1985 Errege Dekretuaren babesean inskribatu zen ofizialki, non kirol klubaren eta elkartearen eraketa eta funtzionamendua arautzen baitzen. 1992an Kirol Elkarte Anonimo bihurtu zen, Kirol Elkarte Anonimoen Araubide Juridikoari buruzko uztailaren 5eko 1041/1991 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Eraldaketa hori urte bereko ekainaren 26an gauzatu zen.

Bestalde, Ipuruia Kirol Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, 2004. urtean eratua, eta 2016. urtetik aurrera bere sortze jarduerak biziberritu du, "SDEibar Fundazioa" izenarekin.

SD Eibarren helburu soziala futboleko kirol modalitatean

izaera profesionaleko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzea da, bai eta kirol jarduerak eta jarduerak horrekin lotutako edo hortik eratorritako beste jarduerak batzuk sustatzea eta garatzea ere. SD Eibarrek, gainera, jarduerak hori bere ingurunean eragin positiboa sortuz garatzeko asmo sendoa dauka, erakundearen inguruneak (uler bedi Eibar eta inguruko herriak) horren onura jaso dezan.

Egoitza soziala:

GRI 102-3 Egoitzaren kokapena

Sociedad Deportiva Eibar, SADk eta Ipuruia Kirol Fundazioak Ipuruia Udal Zelaian daukate egoitza soziala (Ipuruia kalea 2, Eibar, Gipuzkoa).

Erakundeak beste kokapen batzuetan ere garatzen ditu bere jarduerak, hemen zehazten direnak:

- Atxabalpeko entrenamendu zelaia, Arrasaten (Gipuzkoa); Garagartza auzoa, 988 zenbakia.
- Unbeko kirolgunea, Eibarren (Gipuzkoa); Otaola Balle 33.



Jarduerak

GRI 102-2 Jarduerak, markak, produktuak eta zerbitzuak

SD Eibarren helburu soziala futboleko kirol modalitatean izaera profesionaleko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzea da, bai eta kirol jarduerak eta jarduera horrekin lotutako edo hortik eratorritako beste jarduera batzuk sustatzea eta garatzea ere. SD Eibarrek, gainera, jarduera hori bere ingurunean eragin positiboa sortuz garatzeko asmo sendoa dauka, erakundearen inguruneak horren onura jaso dezan.

i. Jarduerak (kirolekoak - kirolekoak ez direnak)Kirol jarduerak berekin dakar SD Eibarrek ohiko kanalen zein online kanalen bidez egiten duen jarduera ekonomiko-komertziala. Jarduera komertzial hori babesletzaren, dendaren eta espazioen ustiapenaren arloetan oinarritzen

Babesletzaren arloan, klubak pausoak egiten eta sponsor berrien zorroa handitzen jarraitu zuen.

24/25 denboraldian, SD Eibarrek eta Smartlog Groupek akordio bat sinatu zuten. Akordio horren bidez Smartlog marka babesle nagusi bihurtu zen gizonezkoen eta emakumezkoen lehen taldeen hiru denboralditarako. Akordio hori izenpetzeak Gipuzkoako bi erakunde konprometituren arteko lankidetzaz estrategikoa sendotzen du, 2024ko urtarrilean emakumezkoen lehen

taldearen babesle nagusia izanik hasi zena.

Babesle tekniko eta babesle nagusi ere badenari dagokionez, 24/25 denboraldian, historikoki klubari lotuta egon den Hummel markak jantzi zituen lehen taldeak (gizonezkoak eta emakumezkoak), baita oinarri futbolaren, futbol eskolaren, beteranoen taldeen eta futbol egokituaren egitura osoa ere.

Premium babesle gisa, SD Eibarrek Areitio Kirol Hiriko obrak egin dituzten bi enpresa eraikitzailearen laguntza izan zuen: Construcciones Mariezcurrena eta Amenabar. Horiekin batera, Sinpel enpresako Galys markak Premium Babesleen zorroa osatu zuen; azken hori, gizonezkoen lehen taldearen ekipazioaren atzealdean ikusgai.

24/25 DENBORALDIAN, SD EIBARREK ETA SMARTLOG GROUPEK AKORDIO BAT SINATU ZUTEN. AKORDIO HORREN BIDEZ SMARTLOG MARKA BABESLE NAGUSI BIHURTU ZEN GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN LEHEN TALDEEN HIRU DENBORALDITARAKO

Era berean, Eibho, Coca Cola, Seat Lugaritz, Caixabank, San Miguel, IMQ eta Viajes Premier Class enpresek babesle ofizial gisa errepikatu zuten. El Diario Vasco, Insalus, FullGas, Podoactiva eta Sarriegui hornitzaile ofizialak izan ziren.

Azkenik, laguntzaile ofizialaren kontratuak indartu egin ziren JAZ Zubiaurre eta Grupo Eibar markekin, Genuine eta garuneko paralisia dutenen taldeen babesle nagusi gisa hurrenez hurren, baita Krea eta Tekniker-ekin ere.



Enpresa Gunea

2023ko azaroan, SD Eibarrek Enpresa Gunea jarri zuen martxan, hots, eskualdeko enpresen topagune eta *networking*izateko helburuarekin sortutako proiektua. 24/25 denboraldian, ekimena indartu egin zen, inguruko enpresekiko harremanak sendotuta; zalantzarik gabe, enpresa horiek ingurune sozial eta ekonomikoaren parte garrantzitsua dira.

Gainera, ekimenari esker, SD Eibarrek erakunde armaginaren parte izateko eta abantaila eta jarduera eskusiboak eskuratzeko aukera eskaintzen die bere babesleei, laguntzaileei eta gainerako enpresei. Kluba topagune bat da eta hainbat eduki eta jarduera eskaintzen ditu hazteko aukera berriak emateko. Komunitatean eragin positibo eta garrantzitsua edukitzea da erronka.

Enpresa Gunea negozio sare osoari zuzenduta dago, bai profesional independenteei eta saltokiei bai enpresei, enpresa sarea biltzea eta bazkideen artean lankidetzak berriak sortzea helburu.

Denboraldian zehar 4 ekitaldi egin ziren. Urriaren 23an (asteazkena), Alex Txikon alpinista ezaguna Ipuruan izan zen. *Ezina eginez* izenburupean, alpinistak hitzaldi bat eman zuen, bertaratuak mendizaletasunaren munduan eta mundu horrek dauzkan erronketan barneratzeko, baina enpresek beren egunerokotasunean aurre egin behar diotenarekin analogia bat eginez. Helburuak ezartzea, plangintza, talde lana, erresilientzia, oztopoak gainditzea, asmo handiko xedeak... termino komunak dira,

eta enpresen hizkuntzan ere badaude, aurreikusitako emaitzak lortzeko hartu behar diren erabakietan.

Bigarren ekitaldia marka arloan espezialista den Juanjo Brizuelaren eskutik etorri zen. Ekitaldiaren ponentzia nagusian (*Marca interna y externa - El arte del pase aplicado al mundo empresarial*), kirol erakunde baten eta enpresa munduaren artean dagoen harreman estua aurkeztu zuen. Formatu parte hartzaile baten bidez, gonbidatuek elkar ezagutzeko eta kirolari eta negozioei lotutako esperientzia profesionalak trukatzeko aukera izan zuten.

Hirugarren topaketan, (*Ohituren garrantzia: Kiroletik enpresara*) Igor Gonzalez de Galdeano txirrindulari profesional ohi eta Frantziako Tourreko azken euskal liderrak hartu zuen parte. Ohituren eta enpresa helburuen lorpenaren arteko harremanari buruzko topaketa izan zen, eta Frantziako Tour-ean irabazle izandako 9 txirrindulariren bizi ereduak azaldu ziren; horien artean: Miguel Indurain, Marco Pantani eta Lance Armstrong.

Azkenik, laugarren topaketa *enpresen arteko partida* izan zen, Ipuruan. SD Eibarko Enpresa Guneako kideek oso berezia izan zen partida batekin agurtu zuten ikasturtea Ipuruan, non klubaren 25 enpresa kolaboratzaile baino gehiagok parte hartu baitzuten.

‘Retail’

Retail-i dagokionez, salmentak handitu egin ziren aurrez aurreko salmenta kanalean, denboraldian zehar hainbat aktibazio eta produktu berri merkaturatuz.

Sarreraren bidez bildutakoa eta "ticketinga"

Sarreraren bidez bildutakoari eta ticketingari dagokienez, emaitzak sendotu egin ziren lehiaketa erregularreko guztizko bilketaren goranzko joerarekin, prezio politikaren estrategia berri baten bidez. Abonatuei dagokienez, 2025eko urtarrilean kuoten sistema berri bat ezarri zen, 2018an ezarri zenaren antzekoa. Sistema horretan, partidetara joaten den jende kopurua kontuan hartzen da 2026an jarraituko duten abonatuaren kuota zehazteko orduan.

**ENPRESA GUNEARI ESKER,
SD EIBARREK ERAKUNDE ARMAGINAREN
PARTE IZATEKO ETA ABANTAILA ETA
JARDUERA ESKLUSIBOAK ESKURATZEKO
AUKERA ESKAINTZEN DIE BERE BABESLEEI,
LAGUNTZAILEEI ETA GAINERAKO ENPRESEI**



b. Balioak

SD Eibarrek oso nortasun definituari eutsi dio 85 urteko historian zehar, eta oso lotura sendoa dauka Eibarrekin eta inguru guztiarekin. Hauek dira betidanik klubaren ezaugarri izan diren balioak:

ZINTZOTASUNA

Kode etiko baten arabera jokatzeko dugu. Eibartar izaeraren errespetua, zintzotasuna, gardentasuna eta elkartasuna defendatzen ditugu. Gure izenak promesa eta bermea ordezkatzeko ditu, eta horregatik, akatsik gabeak izaten saiatzen gara egiten dugun guztian. Araudiari dagokionez, kluba buru-belarri ari da araudia betetzen, eta Compliance Penalaren Kudeaketa Sistemen UNE 19601 ziurtagiriak lortu ditu, baita Eroskeriaren aurkako Kudeaketa Sistemaren ISO 37001 ziurtagiria ere.

Ingurunearekin, pertsoekin eta planetarekin dugun konpromisoa bide luzekoa da. Gure jardura eta gure erabakiak kontzienteak eta arduratsuak dira, eta oraina ez ezik, etorkizuna ere aintzat hartzen dugu.

BIKAINASUNA

Gure tamainak ez gaitu konformista egiten. Anbizio handia daukagu, amets handiak ditugu, proiektu handiak eta borrokatzea merezi duten ideal handiak. Helburu gorenak lortzeko lan egiten dugu, egiten dugun guztian bikaintasuna bilatuz.

ERRESILIENTZIA

Lanari, ahaleginari eta konpromisoari eusten diegu. Gogor eusten diogu, ez dugu gure xedeen konkista bertan behera uzten eta badakigu moldatzen, baita xedeok lortu arte eboluzionatzen ere.

BENETAKOTASUNA

Harro gaude gure sustraiez eta gure desberdintasunaz. Gure egia defendatzeak sinesgarri eta gertuko egiten gaitu, eta baliozko harremanak eraikitzeak aukera ematen digu. Saiatzen gara ez imitatzen, baizik eta klubarentzat zentzua duten erabakiak hartzen.

BERDINTASUNA

Gizaki guztiek berdintasunean eta errespetuan hartuak eta tratatuak izateko duten eskubidean sinesten dugu, inolako diskriminaziorik gabe. Horregatik, gure futbola pertsona guztientzako irekia eta inklusiboa izaten ahalegintzen gara.





c. Nortasuna

Bere printzipio eta balioekin leial jokatzuz lortu ditu klubak bere mugarriak. Izan ere, gurea erakunde umil eta langilea da, merituak lan etengabea eta ondo egindako lanarekiko erantzukizunean oinarritutako kudeaketaren bidez eskuratzen dituena. Bikaintasuna nahita bilatzen du klubak. Horretarako, zintzotasunean eta gardentasunean oinarritutako lan ildoak jorratzen ditu, masa sozialari eta inguruneari hartutako erabakien berri emanez.

UMILAK

Esker onekoak, oinak lurrean, gure lurra zapalduz, fidakorrak baina ez harroak.

SERIOAK

Errespetutsuak, arduratsuak, buruz eta zuzentasunez. Azaletik harago goaz, benetan garrantzitsua dena zaintzen dugu.

ALAIAK

Animatuak eta ilusioz beteak, "kolorea" ematen dugu: bizitasuna eta poztasuna.

GAI SOZIALAK

Poza hartzen dugu uneak eta emozioak partekatzean, eta gozatu egiten dugu elkartuz eta futbola gertutik biziz. Pertsona inklusiboak gara, topagune bat.





d. Proiektuak eta plan estrategikoa

GRI 102-15 Inpaktu, arrisku eta aukera nagusiak

Klubak Futbol Profesionaleko Ligan jarraitzeko bokazioa duenez, ahalik eta exigentzia handienarekin lan egin behar da, klub osoaren lana eta errendimendua ahalbidetuko duten beharrezko azpiegiturak edukitzen saiatzeko.

Horregatik, kontuan hartuta klubaren helburua eliteko futbolean lehiatzea dela, guztiz beharrezkoa da kategoria horretako baldintzak bikaintasunez betetzen lagunduko duten egitura pertsonal bat eta baliabide egitura bat egotea. Hala, klubak profesionalizazioaren aldeko apustua egiten du, bai kudeaketa arloan, bai kirol arloan, bere helburu guztiak lortzeko.

Helburu horrekin, proiektuak sortu dira kirol, azpiegitura eta baliabideak sortzeko arloetan. Gainera, aurreko denboraldian, klubaren Plan Estrategikoa berretsi zen, Laliga Impulso-rekin bat egiteko beharretara eta Eibarren beharretara egokitu ahal izateko.

1. Kirol Hiria

Kirol Hiriaren proiektuak bere bidean aurrera jarraitu du 24/25 denboraldian. Klubarentzat berebiziko garrantzia duen proiektua da.

24/25 denboraldian, SD Eibarren kirol hiriak erritmo onean hazten jarraitu zuen. Egun batean planoen gaineko proiektu gisa hasi zena errealitate ukigarri eta eraginkor bihurtzeko bidean da.

Gunearen urbanizazioa, bide sarbideak eta aparkalekuak egitate bat dira dagoeneko. Baita harmaila eta gizonezkoen lehen taldearen bizitza hartuko duen eraikinaren lehen solairua ere.

Areitio kirol hiriak bost futbol zelai dauzka, hiru belar artifizialekoak eta bi belar naturalekoak, eta 500 pertsona inguru hartuko ditu ia egunero.

Tribunak 1.400 pertsona inguru har ditzake, eta beheko solairuetan oinarri futboleko

instalazioak daude. Dagoeneko erabiltzen hasita daude.

Gizonezkoen eraikin nagusiak handitzen jarraitzen du egunez egun. Gaur egun, obrak egitura osora iritsi dira eta, horri esker, datorren denboraldian gizonezkoen lehen taldearen operazio eta garapen zentroa izango den eraikina bereiz daiteke. Ilusioa handituz doa xehetasun bakoitzarekin, eta eraikina klubaren etorkizun profesionalaren sinbolo gisa altxatzen da.

Proiektuaren alderdi nabarmenetako bat jasangarritasunarekin duen konpromisoa da. Kirol Hiriak bai euri ura bai ibaiarena biltzeko sistema berritzaile bat dauka, zelaiak ureztatzeko erabiltzen dena. Sistema horrek, eskura dauden baliabide hidrikoak optimizatzeaz gain, ingurunea errespetatuko duen eredu arduratsu baten alde klubak egin duen apustu irmoa islatzen du. Kirol Hiriak,

Azpiegitura honetarako funtsezkoak zirenak dagoeneko amaitu dira, eta, hola, gune moderno eta iraunkor baterako oinarria sendotuta geratu da.

Bitartean, Kirol Hiriaren barruko urbanizazioan lanak aurrera doaz. Lan horiek, funtsean, amaierako erremateak dira; horretarako, xehetasunak fintzen eta Kirol Hiriko eremu guztiak lotuko dituzten espazioak egokitzen dira. Ildo horretan, urrats bakoitzak espazio funtzional eta abegikor bat sortzen laguntzen du.

laster, aukera emango die etorkizun handiko gazteei lehen mailako instalazio batean beren talentua garatzeko, eta zaleei aukera emango die harmailetatik animatzeko eta gazteon bilakaera jarraitzeko; izan ere, eskualdeko azpiegitura handienetako bat izateko itxura hartzen jarraitzen du. Klubaren amets gisa hasi zena, egunez egun, benetako espazio bihurtzen ari da, hazteko, prestakuntza jasotzeko eta maila gorenean lehiatzeko pentsatua. Aurki, Areitio izango da SD Eibarren armarrria





2. Digitalizazioa

Digitalizazioari dagokionez, berritasun nagusia zera da: kirol arloko analisi eta hobekuntza tresnek emandako datuak erabiltzea eta ustiatzea; izan ere, horri esker, gizonzkoen lehen taldearen entrenamenduak eta gainerako talde profesionalen eta ez-profesionalen entrenamenduak eta partidak monitorizatu eta grabatu egin daitezke.

Negozioaren arloan, gure abonatu eta akziodunen fideltasun eta kudeaketa sistemen migrazioa landu zen LaLigarekin batera, gure barne kudeaketako sistemetan merkatu inteligentziako tresnak zentralizatu eta txertatzeko.

3. Plan Estrategikoa

Klubak hiru lan ildo nagusitan dihardu. Lehen ildoak klubaren gobernantzari buruzkoa da, eta helburua kluba kudeatzea da, klub modernoek eta elitekoek egiten duten bezala. Bigarren ildoak klubaren ikuspegiari egiten dio erreferentzia, hau da, inguruan eragin positiboa sortzen duen kirol klubaren ikuspegiari. Hirugarren ildoak, azkenik, kirol kudeaketa definitzen du, alegia, SD Eibarren jasagarritasun helburua ahalbidetu eta lagunduko duen kudeaketa. Ildo estrategiko bakoitzean, plana lortzeko egin beharreko ekintza zehatzak zehaztu ziren. Era berean, zenbait barne dinamika ezarri ziren ekimenen segimendua egiteko eta dagozkien batzordeei jakinarazteko.





e. Impulso Plana

LaLigaren Impulso Plana proiektu estrategikoa da klubak eta futbolaren industria garatzeko, LaLigaren produktuaren balioa maila globalean handituz.

24/25 denboraldian 11 bertikal definitu ziren guztira: komunikazioa, estrategia digitala, azpiegitura teknikoa, nazioartekoa, marka, komertziala, teknologia, harrobien plana, ESK, giza baliabideak eta azpiegituren ustiapena. Orokorra izeneko bertikal bat ere sartu zen, eta bertan klubak Plan Estrategikoaren segimendua egiten da.

Definizio prozesuan, klubak garapen plan bat egin zuen, bertikal bakoitzean ekimenak txertatuz, LaLigak ezarritako helburuak betetze aldera. Segimendua LaLigako eta Klubeko bertikalen arduradunen arteko reporting bileren bidez egin zen, hiru hilean behin eguneratutako aginte taula baten bitartez.

CVC funtsak erabilgarri jarri ahal izateko, ezarritako helburuak eta ekimenak bete behar dira; dagozkion justifikazioak, gainera, LaLigak eskatutako dokumentu euskarri guztiarekin aurkeztu behar dira.

300 helburu zehaztu ziren; aurreko denboraldian baino 41 helburu gehiago, hau da, %16ko igoera. Helburu horietatik 212 bete ziren, iragan denboraldian lortutako 176en aldean.

Erabateko betetzeari dagokionez, klubak helburuen %70,70 lortu du, 23/24 denboraldiko %68,0 gaindituz eta hirugarren taldeko batez bestekoa apur bat gaindituz (%70,40).

Hauek izan ziren SD Eibarren mugarri nagusiak bertikal bakoitzean:

IMPULSO PLANA BETETZEARI DAGOKIONEZ, KLUBAK HELBURUEN %70,70 LORTU DU, 23/24 DENBORALDIKO %68,0 GAINDITUZ ETA BERE TALDEKO BATEZ BESTEKOA APUR BAT GAINDITUZ (%70,40).



✖ Orokorra Plan Estrategikoa bete da, baita segimendua ere. Ekimen bat da.	✖ Komunikazioa Bertikal honetan, ekimenak ildo hauetan sailkatu ziren: korporatiboa, nazioartekoa, B2B, barnekoa. Ildo horiek plan korporatiboen definizioari, nazioartekotzeko estrategiei eta barne komunikaziorako ekintza espezifikoak buruzkoak dira. 27 ekimen zehaztu ziren.	✖ Estrategia digitala Bertikal honetan, ekimenak ildo hauetan sailkatu ziren: eduki digitalak, growth (hazkundera) eta monetizazioa. LaLigak bereziki azpimarratzen ditu klubei sare sozialetan hazten lagunduko dieten ekimenak, jarraitzaileen kopurua handitzen eta sortzen diren edukien kantitatea eta kalitatea handitzen lagunduz. 33 ekimen zehaztu ziren.	✖ Azpiegitura teknikoa Bertikal honetan, ekimenak honako ildo hauetan sailkatu ziren: segurtasuneko sistema teknikoak, erregulatzailea, RRTV betetzea, sarbideak hobetzea, komunak modernizatzea, proiektu teknologikoak eta eraginkortasuna-jasangarritasuna. Eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko proiektuetan inbertituko da. 33 ekimen zehaztu ziren.	✖ Nazioartekoa Bertikal honetan, honako ildo hauetan sailkatu ziren ekimenak: nazioarteko plangintza estrategikoa, LaLigako ekimenei atxikitzea, nazioarteko aktibazioen plana, nazioarteko ekintzen inbertsioa eta lanean jarritako langileak. Bertikal honetan, zenbait proiektuen bidez, klubak hazteko ahalmena duen nazioarteko merkatu estrategikoetan marka gisa eragin ahal izatea bultzatzen da. 22 ekimen zehaztu ziren.	✖ Marka Bertikal honetan, ekimenak honako lerro hauetan sailkatu ziren: marka estrategia, marka komunikazioa, marka identitatearen eskuliburua, marka babesa, barne kudeaketa, markaren sendotasuna-koherentzia eta merkatuen ikerketa. Bertikal honetan, merkatu ikerketa bat diseinatzeko ari gara, baita hainbat euskarritan dituen aplikazioak lantzen ere. 27 ekimen zehaztu ziren.
✖ Komertziala Bertikal honetan, ekimenak ildo hauetan sailkatu ziren: egitura, prozesuak, komertziala eta <i>retail & merchandising</i>. Bertikal honetan, merkaturatze, salmenta eta aktibazio prozesuak berrantolatzea bideratu da inbertsioa, bai eta aktibo erabilgarrien estrategia berriz diseinatzera ere. 28 ekimen zehaztu ziren.	✖ Teknologia Bertikal honetan, ekimenak ildo hauetan sailkatu ziren: egitura, korporatiboa-kudeaketa, kirol arloa, negozio garapena, fan-aren kudeaketa eta data & analytics. Bertikal honetan, aurreko denboraldian zehaztu zen eraldaketa digitaleko plana ezartzen ari da, eta hiru urteko denbora muga du. Klubarentzako helburu transbertsalak zehazten dituen bertikala da. 32 ekimen zehaztu ziren.	✖ Harrobien Plana Bertikal honetan, ekimenak honako ildo hauetan sailkatzen dira: egiturak eta profesionalen garapena, azpiegiturak-baliabideak, prestakuntza eredua-lehiarako transferentzia, jokalaria rentzako arreta integrala, eta garapena eta futbol profesionalerako transferentzia. Bertikal honetan jarraipena eman zitzaizkien aurreko denboraldiko proiektuei. 44 ekimen zehaztu ziren.	✖ ESK Bertikal honetan, ekimenak honako ildo hauetan sailkatu ziren: Toolkits saioak (tresna kita), karbono azterna neurtzeko tresna, materialtasun bikoitza. Printzipio etikoak eta ingurumenarekiko errespetua lehenetsiz garatu ziren proiektuak, enpresaren lehiakortasunari eta jasangarritasunari lagunduz. 3 ekimen zehaztu ziren.	✖ Giza Baliabideak Bertikal honetan, ekimenak honako ildo hauetan sailkatu ziren: antolaketa eta egiturak, talentua eskuratzea, prestakuntza eta talentuaren garapena, engagement (erakarpene) eta talentuaren fidelizazioa, eta digitalizazioa. Kudeaketa eraginkorragoa egiten lagunduko duten tresna digitalak lantzen ari gara. 25 ekimen zehaztu ziren.	✖ Azpiegituren ustiapena Bertikal honetan, ekimenak honako ildo hauetan sailkatu ziren: negozio plan estrategikoa, egitura, ticketing, hospitality, partida gabeko eguna eta kirol hiria. Lan arlo nagusiak klubak sortzen dituen diru sarrerak lortzeko estrategien definizioan oinarritzen dira. 25 ekimen zehaztu ziren.



f. Arriskuen kudeaketa

GRI 102-15 Inpaktu, arrisku eta aukera nagusiak

Erakundeak arriskuak kudeatzeko duen eredua, batez ere, Ikuskapen eta Kontrol Organoan oinarritzen da. Organo hori klubeko bi pertsonak eta kanpoko batek osatzen dute. Bere funtzio nagusia da klubean Eroskeriaren aurkako eta Compliance politikak betetzen direla zaintzea. Organo horrek finantza arloari eta araudia betetzeari lotutako arriskuak identifikatzen ditu.

Gainera, badaude klubaren beste arlo batzuei eragiten dieten bestelako arriskuak, taula honetan zehazten direnak:

ARRISKUA

JARDUTE ILDOA

FINANTZA ETA GOBERNANTZA ARLOA	
Arauak ez betetzeagatiko isunak.	1.- Araudiaren segimendua. 2.- Klubak enplegatuei informazioa/prestakuntza ematea bete beharreko araudiari buruz.
Telebista eskubideetan eragina duten maila fluktuazioak.	1.- Baliabide ekonomikoak optimizatzea. 2.- Diru sarrera propioen lerroak sortzea.
Inbertsioei eragiten dieten finantza merkatuetako fluktuazioak.	1.- Banku agenteekin segimendua egitea.
UNE 19601 eta ISO 37001 arauak betetzeko kontroletatik eratortzen diren klubaren barne prozesuak ez betetzea.	1.- Ikuskapen eta Kontrol Organoak kontrolen segimendua egitea. 2.- Prozesuei eta kontrolei buruzko informazioa lantaldeei.
INGURUMEN ARLOA	
Ingurumen inpaktuak Kirol Hiriaren eraikuntzan.	1.- Ingurumen politikak ezartzea. 2.- Politika instituzionalen segimendua.
Ingurumenari jaramonik ez egiteagatik ospeari kalte egitea.	1.- Klubaren ingurumen ekintzen plana.
Arauak ez betetzeagatiko isunak.	1.- Araudiaren segimendua.
ARLO SOZIALA	
Arrazagatiko, sexuagatiko edo desgaitasunagatiko diskriminazioa.	1.- berdintasunerako eta inklusiorako, jazarpenaren aurkako eta diskriminazioaren aurkako barne politikak betetzea.
Interes taldeekiko konexiorik edo komunikaziorik eza.	1.- Interes taldeekin komunikazio politikak ezartzea eta betetzea. Mailingak, inkestak, postontziak eta kolektibo horiei arreta emateko hainbat kanal.
Nortasun falta eta ilusioa sortzeko gaitasun falta, abonatuengan eta zaleengan gogaitasuna eragiten duena.	1.- Gure historia kontatuko duen marka plana. 2.- Hurbiltasuna sortzea klubaren-zaleen kanpaina eta ekintzen bidez.



g. Negozio zifra

GRI 102-7 Erakundearen tamaina

Aipatutako ekitaldiko jardueraren funtsezko zifrak honako hauek izan ziren; ulertuz negozio zifraren zenbatekoa bi erakundeen zenbateko garbia dela, ekitaldien itxiera datan enplegatutako pertsonen kopurua, eta tributu gisa, Ogasunari (Foru eta Toki Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari egindako ordainketak:

ERAKUNDEA	NEGOZIO ZIFRAREN ZENBAT.	LANGILEAK	TRIBUTUAK
Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D.	10.723.000 €	166	4.665.000 €
Ipurua Kirol Fundazioa	1.433.000 €	73	285.000 €



Pertsonak




EGITURA ETA ORGANIGRAMA

GRI 102-8 Enplegatuei eta beste langile batzuei buruzko informazioa

GRI 102-18 Gobernantza egitura

24/25 denboraldian hainbat lanpostu amortizatu zirenez, erakundea berregituratu egin zen, eta organigrama honela osatu zen:






b. Ipurua Kirol Fundazioaren organigrama

24/25 denboraldian, Fundazioak jarraipena eman zion aurreko urtean hasitako berregituraketari, proiektuen kudeaketa optimizatzeko eta ildo estrategikoei modu zuzenagoan erantzuteko.

Organigrama honela geratu da:



c. Batzordeak

SD Eibarko batzordeak honela osatuta geratu dira:

1. Batzorde exekutiboa

KIDEAK	KARGUA
Amaia Gorostiza Telleria	Presidentea
Jon Ander Ulazia Garetxana	Kontseilukidea
Joseba Unamuno Areitioaurtena	Kontseilukidea
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea

2. Ekonomia Batzordea

KIDEAK	KARGUA
Amaia Gorostiza Telleria	Presidentea
Joseba Unamuno Areitioaurtena	Kontseilukidea
Virginia Arakistain Ariznabarreta	Kontseilukidea
Andoni Zabala Zabaleta	Kontseilukidea
Ane Sarrionandia Larrinaga	Finantza zuzendaria
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea



3. Negozio Arloko Batzordea

KIDEAK	KARGUA
Andoni Zabala Zabaleta	Kontseilukidea
Alex Martinez Urizar	Kontseilukidea
Leire Barriuso Astigarraga	Kontseilukidea
Andoni Aranzabal Leibar	Zuzendari komertziala
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea

4. Obra, Instalazio eta Segurtasun Batzordea

KIDEAK	KARGUA
Amaia Gorostiza Telleria	Presidentea
Jose Antonio Fernandez Taboada	Kontseilukidea
Javier Sarrionandia Echandi	Kontseilukidea
Gorka Unamuno Enzunza	Instalazio eta segurtasuneko zuzendaria
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea

5. Gizonezkoen Futbol Profesionaleko Kirol Batzordea:

KIDEAK	KARGUA
Amaia Gorostiza Telleria	Presidentea
Jabier Gurrutxaga Rivero	Kontseilukidea
Anton Martinena Mallagaray	Kontseilukidea
Jon Ander Ulazia Garetxana	Kontseilukidea
Cesar Palacios Chocarro	Kirol zuzendaria
Arkaitz Lakanbra Askasibar	Idazkari teknikoa
Jose Maria Arrizabalaga Aguirreazaldegui	Presidentearen aholkularia

6. Emakumezkoen Futbol Profesionaleko eta Futbol Amateurreko Kirol Batzordea:

KIDEAK	KARGUA
Anton Martinena Mallagaray	Kontseilukidea
Leire Barriuso Astigarraga	Kontseilukidea
Javier Sarrionandia Echandi	Kontseilukidea
Arkaitz Lakanbra Askasibar	Idazkari teknikoa
Raul del Pozo Guinaldo	Oinarri futboleko zuzendaria
Jordi Torres Palomino	Emakumezkoen idazkari teknikoa

7. Beste batzorde batzuk:

Segurtasun Batzordea
Euskara Batzordea
Berdintasun Batzordea



Fundazioko batzordeak honela antolatuta geratu dira:

1. Kirol Batzordea	
KIDEAK	KARGUA
Mikel Larrañaga Mandiola	SD Eibar Fundazioko presidenteordea
Raul del Pozo Guinaldo	Oinarri futboleko zuzendaria
Ander Romarate Aguirre	Futbol egokituaren arduraduna
Oscar Artetxe Pascual	Gizonezko beteranoa
Ainhoa Alonso Elorza	Emakumezko beteranoa
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea
Elisa Mangado Martin	Fundazioko zuzendaria
Arrate Fernandez Prieto	Fundazioa eta protokoloa

2. Eibar Txiki Batzordea	
KIDEAK	KARGUA
Mikel Larrañaga Mandiola	SD Eibar Fundazioko presidenteordea
Unai Leon Garrido	Gizonezkoen Futbol Eskolako koordinatzailea
Alaitz Seoane Lugarizaristi	Emakumezkoen Futbol Eskolako koordinatzailea
Jordi Clares Frauca	Metodologiaren arduraduna
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea
Elisa Mangado Martin	Fundazioko zuzendaria

3. Eibar Gizartean Batzordea	
KIDEAK	KARGUA
Mikel Larrañaga Mandiola	SD Eibar Fundazioko presidenteordea
Jon Ander Ulazia Garetxana	Kontseilukidea
Leire Barriuso Astigarraga	Kontseilukidea
Jesus Gutierrez Arosa	Historialaria
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea
Elisa Mangado Martin	Fundazioko zuzendaria
Arrate Fernandez Prieto	Fundazioa eta protokoloa

4. ESK Batzordea	
KIDEAK	KARGUA
Mikel Larrañaga Mandiola	SD Eibar Fundazioko presidenteordea
Jon Ander Ulazia Garetxana	Kontseilukidea
Leire Barriuso Astigarraga	Kontseilukidea
Jesus Gutierrez	Historialaria
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea
Elisa Mangado Martin	Fundazioko zuzendaria
Arrate Fernandez Prieto	Fundazioa eta protokoloa



5. Berdintasun Batzordea

KIDEAK

Mikel Larrañaga Mandiola	SD Eibar Fundazioko presidenteordea
Javier Sarrionandia Echandi	Kontseilukidea
Virginia Arakistain Ariznabarreta	Kontseilukidea
Jordi Torres Palomino	Emakumezkoen futboleko idazkari teknikoa
Mikel Orbegozo Azkondo	LLO (langileen legezko ordezkaria)
Estrella Tardio Fernandez	LLO (langileen legezko ordezkaria)
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea
Elisa Mangado Martin	Fundazioko zuzendaria
Arrate Fernandez Prieto	Fundazioa eta protokoloa

6. Euskara Batzordea

KIDEAK

Mikel Larrañaga Mandiola	SD Eibar Fundazioko presidenteordea
Leire Barriuso Astigarraga	Kontseilukidea
Ainhoa Otaegui Aizpurua	Gerentea
Ibon Hernando Refoyo	Oinarri futbola
AKEBAI	Eibarren Euskara Garatzeko Plana ezartzeko elkarte
EMUN	Euskara Plana ezartzeko aholkularitza
Arrate Fernandez Prieto	Fundazioa eta protokoloa



5. PERTSONEN KUDEAKETA

a. Lanaren antolaketa

GRI 102-8 Enplegatuei eta langileei buruzko informazioa

I. Enplegua

24/25 denboraldiko datu hauek aurkeztu ditu klubak:

TARTEA	K.	GIZ.	EMAK.	K. FINKO	AL. BAT. K.
18-25	99	73	26	0	99
26-35	60	42	18	13	47
36-45	17	15	2	10	7
46-55	18	14	4	8	10
56-70	9	8	1	7	2
GUZTIRA	203	152	51	38	165

II. Ordainsaria

GRI 102-35 Ordainsari politikak

Enplegatu guztiek ordainsari finkoa jasotzen dute beren zerbitzuak emateagatik.

Bestalde, gehienek ordainsari aldakorra daukate, beren funtzioen edo eragin eremuen arabera:

- o **Kirol arloa:** Kirol sailkapeneko eta banakako helburuak
- o **Kudeaketa arloa:** Helburuak kirol sailkapenaren arabera

Ez da alborapenik egiten sexua edo beste edozein arrazoi dela eta.



b. Giza baliabideetako politikak

- GRI 404-1 Prestakuntza orduen batez bestekoa urtean, enplegatu bakoitzeko
- GRI 404-2 Enplegatuen gaitasunak hobetzeko programak eta trantsizioan laguntzeko programak
- GRI 404-3 Jardunaren eta garapen profesionalaren aldizkako ebaluazioak jasotzen dituzten enplegatuen ehunekoa

I. Prestakuntza

Erakundearen organigraman izandako aldaketekin eta Impulso Planaren proiektuetan sartzearekin batera, garapen teknologiko eta digitalari buruzko prestakuntzak egin ziren LaLigaren eskutik.

Alde batetik, prestakuntza korporatiboagoak egin ziren, hala nola *Compliance* eta DBEO, arlo horietako ezagutzak eta praktikak indartzeko, kontuan hartuta egunerokotasunaren parte direla.

Klubak lanean jarraitzen du enplegatuen prestakuntza eta karrera hobetzeko eta planifikatzeko, erakundean etorkizun argia izan dezaten eta enpresaren eta enplegatuen arteko harremana sendotzeko, harreman hori ahalik eta iraunkorrena izan dadin.

II. Enplegatuentzako abantailak

GRI 401-2 Aldi baterakoak edo lanaldi partzialekoak ez diren lanaldi osoko langileentzako prestazioak

Ordutegiak ezartzen dira aplikatzen den hitzarmenak ezarritako ordu guztien arabera (Gipuzkoako lokalak eta ikuskizunak langile arruntentzat eta Liga-AFE hitzarmena eta federazioaren hitzarmena kirol arlorako), zeinak pixka bat ezberdinak diren lanpostuaren arabera.

Lan denboraren antolamenduari dagokionez, honako neurri hauek ezarri dira:

Sartzeko eta irteteko ordutegi malgua

Lanaldia hasten eta amaitzen den unea enpresak ezarritako muga jakin batzuen barruan doitzeko aukera ematen du, lan ordutegi zorrotza izan beharrean. Halatan, SD Eibarrek ordutegi malguak eskaintzen ditu, lan bizitzaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka hobetzeko, laneko gogobetetasuna eta morala handitzeko, estresa eta nekea murrizteko, eta, azkenik, norbanakoaren beharretara egokituz, talentua hobeto atxikitzeko.

Lanaldi trinkoa oporraldietan

Kontua da oporraldietan lanorduak egun gutxiagotan kontzentratzea. Horretarako, SD Eibarrek modalitate malgu hori eskaintzen du oporraldietan, eta hala aukera ematen die enplegatuei denbora libre gehiago izateko oporretan, eta, aldi berean, beren lan betebeharrak betetzeko.

Lan mugikorra

Hainbat onura eskaintzen ditu, bai enplegatuentzat, bai enpresentzat. Enplegatuentzat, lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka handiagoa ekar dezake, eguneroko joan-etorriekin lotutako denbora eta estresa ezabatzen baitira.

ERAKUNDEAK ABANTAILAK
ESKaintzen dizkie Langileei, Hala
NOLA ORDUTEGI MALGUA, ASEGURU
MEDIKOA ETA LAN MUGIKORRA

Hala, SD Eibarrek, neurri horren bidez, aukera ematen die langileei beren erantzukizun profesionalak eta konpromiso pertsonal eta familiarrak orekatzeko, lan ordutegiak modu eraginkorragoan kudeatzeko behar den malgutasuna eskainiz.

Oporraldia aukeratzeko askatasuna

Oporrak noiz hartu erabakitzeko malgutasuna edukitzean datza, enpresak aurrez zehaztutako opor egutegiari jarraitu beharrean. SD Eibarrek oporraldia askatasunez hautatzeko aukera ematen du, oporrak norberaren konpromisoen eta lehentasunen arabera antolatzeko; hola, enplegatuen ongizate eta gogobetetasunarekin hartua duen konpromisoa erakusten du.

Bestalde, erakundeak askotariko abantailak eskaintzen dizkie enplegatuei:

- Aseguru medikoa.
- Aparkalekua.
- Gimnasioa.
- Kirol ekitaldietarako sarrerak.
- Retaileko deskontuak.



c. Harreman sozialak

Enpresak badauka langileen legezko ordezkaritza bat, eta hiru kidek osatzen dute.

d. Berdintasuna

Berdintasun plana

SD Eibarren Berdintasun Plana funtsezko ekimena da, genero berdintasuna sustatzea helburu duena, bai klub barruan, bai Fundazioan.

2019an abiarazitako I. Berdintasun Plana amaitu ondoren, erakundea II. Plana ezartzeko lanean ari da gaur egun, hartutako konpromisoei jarraipena emanez eta Berdintasun Batzordearen laguntzarekin ekintza ildo berriak indartuz. Erakundearen arlo guztietan gizonen eta emakumeen parte hartzea orekatu nahi da, zuzendaritzaren kudeaketatik hasi eta oinarri futboleko taldeetaraino.

24/25 denboraldian, gainera, **Berdintasunaren eta Emakumeen kontrako Indarkeriarik Gabeko Bizitzen aldeko Herri Ituna** sinatu zen Emakunderekin batera, eta itun horretan ezarritako helburuen esparruan, prestakuntza eta kontzientziazio jarduerak inplementatu ziren udako campusean.

Proiektua klubaren ildo estrategikoen parte da, eta ikuspegi berezia du familia eta lana uztartzeari dagokionez, bai eta generoagatiko edo sexu orientazioagatiko diskriminazioaren prebentzioari dagokionez ere.

Aukera berdintasuna

Kirol arloan, desgaitasunen bat daukaten pertsonentzako bi futbol talde ditu klubak. Alde batetik, desgaitasun intelektualak daukaten pertsonak osatutako talde bat dago, LaLiga Fundazioak antolatutako LaLiga Genuine txapelketa inklusiboaren parte dena. Bestalde, PC Futbol Liga Nazionalean lehiatzen den beste talde bat ere badago, garuneko paralisia edo hartutako kalte zerebrala duten pertsonentzat. Eibar liga horretako txapeldun izan zen 2023ko apirilean; 2023/2024 denboraldian hirugarren geratu zen, eta 2024/2025 denboraldian berriz ere ligako titulua eskuratu zuen.

Kontratazioen eta pertsonen arloan, klubak akordioak dauzka Gipuzkoako Aldundiarekin eta desgaitasunen bat daukaten pertsonen aldeko erakunde eta elkarteekin. 24/25 denboraldian, Eibarrek desgaitasuna zeukaten bi langile eduki zituen guztira.

e. Segurtasuna eta osasuna

GRI 403-1 Lanean osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistema

i. Laneko arriskuen prebentzioa

31/1995 legearen arabera, klubak prebentzio plana dauka enpresa bietan: SD Eibarren eta Fundazioan.

Klubaren aseguru etxe den IMQ Prevención-ek aldizkako bisitak eta prebentzio ikastaroak egiten ditu langile guztientzat.

ii. Urteko azterketa

SD Eibarko eta Fundazioko langile guztiek azterketa medikoak egiten dituzte urtero IMQren bidez.



Gobernu ona



6. BETETZE ETA BARNE KONTROLEKO ARLOA

GRI 102-16 Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide arauak

SD Eibarrek konpromiso sendoa dauka elkarteak berak barneko eta kanpoko esparruetan ezarritako arauak betetzeko arloarekin (praktika onenak, kode etikoa, ustelkeriaren aurkakoa, arriskuen prebentzioa lantokian, datuen babesa, kapitalen zuritzea, etab.).

Konpromiso hori bat dator klubak erakundearen kudeaketa eta gardentasuna indartzeko duen uste sendoarekin.

a. Compliancea

SD Eibarren *Compliance* kudeaketa sistema, berez, araudia betetzen dela zaintzeko ardura duen Ikuskapen eta Kontrol Organoak (IKO) kontrolatzen du. Organo hori barneko bi pertsonak eta kanpoko batek osatzen dute:

- Ane Sarrionandia Larrinaga andrea, presidentea.
- Ainhoa Otaegui Aizpurua andrea, barneko kidea.
- Eversheds Sutherland Nicea, SLP da kanpo aholkularia, Fabio Perez-Bryan jaunak ordezkatua, Ikuskapen eta Kontrol Organoko kanpoko aholkulari gisa.

Organoak betetzen dituen zeregin nagusien artean honako hauek daude:

- Klubaren betetze arloarekin lotutako auditoriak prestatzea eta koordinatzea.
- Erakundearen Arauak Betetzeko Eskuliburua prestatzea, berrikustea eta eguneratzea, hala dagokionean.
- Denboraldi bakoitzerako Compliance programaren helburuen eta segimendu adierazleen plana prestatzea.
- Klubaren Compliancearen urteko komunikazio plana.

b. Kode etikoa

GRI 102-17 Aholkularitza mekanismoak eta ardura etikoak

SD Eibarren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 27an onartutako Kode Etikoak klubaren jardute arauak eta gobernu eta jokabide printzipio orokorrak azaltzen ditu, eta horiek klubari lotutako pertsona guztiei aplikatzen zaizkie. Dokumentu hori, beraz, langile guztiei ematen zaie klubarekin lan harremana hasten duten unean, eta denentzat eskuragarri jartzen da webgune korporatiboan.

Kode etikoan erakundearen funtsezko printzipio eta balio etikoak sistematizatzen dira, eta hauek dira:

- A. Zintzotasuna, gardentasuna eta etika
- B. Joko garbia
- C. 0 tolerantzia edozein ustelkeria motarekin
- D. 0 tolerantzia kiroleko indarkeriarekin, diskriminazioarekin, jazarpenarekin, arrazakeriarekin, xenofobiarekin eta intolerantziarekin
- E. Entrega, ahalegina eta talde lana
- F. Konfidentzialtasuna

Klubarekin lotura daukaten pertsona guztiek sinatu behar dute kode etikoa, eta berariaz adierazi behar dute uko egiten diotela printzipio horien aurkakoa izan daitekeen jarduera orori; gainera, metodo eta praktika ilegalak, ezmoralak eta printzipio etikoen aurkakoak saihestuko dituzte, baita klubaren irudia edo ospea zikindu edo kaltetu dezaketenak ere.

Kode etikoan ezarritako printzipioak garatuko dira klubak araudia betetzeko daukan programaren eskuliburuan jasotako protokoloen eta kontrol mekanismoen bidez, programa onartzen den unean, bai eta etorkizunean txerta daitekeen beste edozeinen bidez ere.



GRI 205-1 Ustelkeriarekin lotutako arriskueta arako ebaluatutako eragiketak

SD Eibarrek, protokolo honen bidez, jokabide arauak eta kontrol neurriak ezartzen ditu, erakundean eragin zuzena edo zeharkakoa izan dezakeen orotariko ustelkeria eta eroskeria mota prebenitzeko, detektatzeko, borrokatzeko eta, hala badagokio, zigortzeko. Dokumentu hori langile guztiei ematen zaie klubarekin lan harremana hasterakoan, eta eskuragarri dago webgune korporatiboan.

d. Kanal etikoa

Compliance arauak dagokienez egin litezkeen ez-betetzei buruzko edozein zalantza, kontsulta edo informazio jasotzeko sortutako komunikazio kanala da. Kanal hori kanpoko erakunde batek kudeatzen du, eta erakunde hori, aldi berean, Ikuskapen eta Kontrol Organoaren kanpoko aholkulari da.

23/24 denboraldian, komunikazio kanala Whistleblower plataformarekin inplementatu zen, arau hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko 2/30 Legearen arabera, zeinak bermatzen baitu kanal horren bidez egiten diren salaketen pribatutasuna.

Horri dagokionez, denboraldian ez da salaketarik jaso. Era berean, ekitaldia ixteko datan, ez dago ikerketarik abian.

e. Gardentasuna

SD Eibarren nortasun ezaugarrietako bat gardentasuna da. Izan ere, klubak gehieneko nota lortu zuen Nazioarteko Gardentasunak egiten duen rankingaren azken edizioan, GKE horrek egiten duen INFUT 2019 Gardentasun Txostenaren bidez.

Ekimen horren bidez, erakundeak SD Eibarren informazio publikoaren maila eta, beraz, gardentasun sozialaren maila hobetzen lagundu nahi du, bai eta herritarrengana eta masa sozialera gehiago hurbiltzen ere.

Era berean, gardentasun hori berretsi egiten da urteko kontuetan eta finantza egoeretan, ospe handiko auditoria enpresa multinazional batek emandako iritzien bermearekin.

Gainera, duela 5 urtetik hona, SD Eibarrek jasagarritasun txostena argitaratzen du, eta ingurumen arloan, arlo sozialean eta gobernantza arloan egiten duen kudeaketaren berri ematen die bere interes taldeei.

Duela 3 urtetik hona, klubak akziodunen eskura jartzen du Akziodunaren Txokoa, hau da, eskaerak, kontsultak eta proposamenak jasotzeko gunea. Gune bat webgune ofizialean, akziodunek zalantzak, kontsultak eta proposamenak bidaltzeko.

Web formulario baten bidez, interesa duten pertsonak beren eskaerak helaraz diezazkiokete klubari. Kanal hau duela zenbait urte klubak komunikazio zuzena sustatzeko eta jasotzen ziren kontsultei erantzuteko martxan jarri zuen accionistas@sdeibar.com helbide elektronikoari gehitzen zaio. Era berean, Orsaixanera hurbiltzeko aukera dago, hau da, lporuako abonatuaren eta akziodunaren arretarako gunera.

f. Giza eskubideak

SD Eibarrek konpromiso sendoa hartua du giza eskubideak zaintzearekin, honako ekimen hauen bidez:

- Gizonen eta emakumeen eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonen arteko berdintasun politikak.
- Compliance sistema eta segimendu neurriak.
- Whistleblower plataforma, erakundearen barruan jokabide eta ekintza bidegabeak salatzeke.

g. Datuen babesa

Klubak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) betetzen du, eta, hola, Europar Batasuneko datuak babesteko araubide berrira egokitzen da; orobat, DPO (*Data Protección Officer*) bat izendatu du, baldintza guztiak behar bezala betetzen direla zaintzeko.



Ingurumena



7. INGURUMEN EKINTZAK

Klubak, ekintza sozialetan zein azpiegituren kudeaketan, bere ingurunean eragin positiboa sortzea du helburu, bere jarduera ingurumenerako kaltegarria izango ez dela zainduz eta indarrean dagoen araudia betez.

Horregatik, kontsumoak zaintzen ditu, karbono aztarna neurtzen du, ingurumen araudia betetzen du instalazioetan, eta, gainera, bere interes taldeak ingurumena zaintzearen inguruan kontzientziatzeko lana egiten du.

a. Kontsumoak

GRI 302-1 Erakunde barruko energia kontsumoa

Atxabalpeko eta Ipuruako kontsumoak honako hauek izan dira:

	IPURUA	ATXABALPE
GAS NATURALA	175.817 kWh.	42.301 kWh.
ELEKTRIZITATEA	951.271 kWh.	13.896 kWh

b. Karbono aztarnaren neurketa

GRI 305-1 BEGen zuzeneko emisioak (1 irismena)

GRI 305-2 BEGen zeharkako emisioak energia sortzean (2 irismena)

GRI 305-3 BEGen zeharkako beste emisio batzuk (3 irismena)

EMISIOAK	1 irismena t CO2 eq	2 irismena t CO2 eq	3 iris. t CO2 eq	Emis. guztira t CO2 eq
KIROL INSTALAZIOAK	85,24	277,97	0,0	363,21

c. Ingurumen ekintzen plana

Fundazioak, eta klubak bere ingurunearekin eta interes taldeekin dituen helburuei jarraituz, hainbat ekintza burutu ditu.

23/24 denboraldian, klubaren ingurumen ekintzen planak honako helburu hauek ezarri zituen:

- Inpaktu positiboa ingurunean.** Egiten ditugun ekintzek ingurune hobe eta osasungarriago batean eragina izatea.
- Helburu komunak lortzen lagunduko diguten **loturak sortzea enpresa eta erakundeekin.**



**SD EIBARREK URTERO NEURTZEN
DU KARBONO AZTARNA, ETA
AZTARNA HORI MURRIZTEN
SAIATZEN DA.**

**KLUBAK EZ DU EZ ISUNIK EZ
ZIGORRIK JASO INGURUMEN
ARAUDIA EZ BETETZEAGATIK**

Hauek dira arlo honetan egindako ekintzak:

Kanpoko kontzientziazio ekintzak

Kluba ekintzak diseinatzen ari da gure langileak kontzientziatzeko, bai eta SD Eibarko hurbileko zaleak eta taldeak kontzientziatzeko ere.

Karbono aztarnaren neurketa

SD Eibarrek urtero neurtzen du karbono aztarna, haren inpaktua norainokoa den jakiteko. Datu horiek edukita, karbono aztarna murrizten saiatzen gara.

d. Ingurumen arloko betetzea

GRI 307-1 Ingurumeneko legeak eta arauak ez betetzea

Klubak ez du ez isunik ez zigorrik jaso indarrean dagoen ingurumen legeria eta araudia ez betetzeagatik.



Gizartea
eta **ingurunea**



8. POLITIKA SOZIALAK

GRI 203-2 Zeharkako inpaktu ekonomiko esanguratsuak
GRI 413-1 Tokiko komunitatearen parte hartzea duten eragiketak, inpaktuaren ebaluazioak eta garapen programak

a. Ipurua Kirol Fundazioa

Fundazioa klubaren organo soziala da, eta bere helburu nagusia klubaren helburuak lortzen laguntzea da, ikuspegi sozialetik eta gizartea eta ingurunea kontuan hartuta. Klubaren politika sozialak bideratzeaz arduratzen den agentea da.

24-25 denboraldian, aurreko denboraldian ezarritako lan eredu berria finkatu zen, patronatu formatu zaharraren lekuan batzorde espezifikoak sortzean oinarrituta. 4.b eta 4.c ataletan zehazten denez, batzorde bakoitzak bere gain hartu du klubaren ildo estrategikoetako baten erantzukizuna, eta, horri esker, proiektuak bizkorrago eta eraginkorrago garatu ahal izan dira.

Aldi horretan, batzordeetako lana bereziki aktiboa izan zen, klubeko langileen eta entitateari lotutako boluntarioen parte hartze konprometituarekin. Lankidetzak horrek Fundazioaren ikuspegi kolektibo eta transbertsala indartu du, lan dinamika parte hartzaileagoak, arinagoak eta ezarritako helburu estrategikoekin lerrokatuagoak sortuz.

Fundazioaren helburuak honako hauek dira:

1. Eskualdeko eragileekin **ekimen propioak bultzatzea**; udalekin, elkarteekin, interes taldeekin. Horrek klubaren interakzioa eta presentzia sustatzen du, ez bakarrik Eibarren, baita eskualdean ere; gainera, lurraldeko beste eragile batzuekin aliantzak sortzea ere sustatzen du.
2. **Ingurumenaren arloa lantzea**, barneko planteamendu baten bidez (langileak kontzientziazatzea, bulegoetako eta estadioko

hondakinak kudeatzea) eta kanpoko planteamendu baten bidez (abonatuak eta zaleak kontzientziazatzea Ipuruako *match day* esperientzian).

3. Enpresen eta hornitzaileen ekosisteman **aliatuak bilatzea**, klubarentzat inpaktu ekonomiko txikiko proiektuak gauzatu ahal izateko.
4. **Aukera berdintasunarekiko konpromisoa indartzea, Emakunderen** eskutik genero ekitatearen printzipioekin bat datozen neurriak eta ekintzak bultzatuz, bai barruan, bai kanpoan. Ikuspegi hori modu transbertsalean txertatu da Fundazioak denboraldian zehar garatutako jarduera eta programetan.
5. **Kirol arloan euskararen erabilera eta presentzia sustatzea**, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, **Hizkuntza Politikarako sailburuordearen** bitartez, zeinarekin sinergiak ezarri baitira klubaren dinamiketan eta Fundazioak egiten dituen jardueretan euskararen normalizazioa sustatzeko. j

Helburu horiek klubaren balioekin lerrokatuta daude, hala nola hurbiltasunarekin, jasagarritasunarekin eta benetakotasunarekin.

b. Ekimen nagusiak

Klubaren ildo estrategikoen artean, hainbat proiektu daude:

Ildo estrategikoak	
Kirol arloa	Oinarri futbola Futbol egokitua Beteranoak Kirol ez-profesionalari zuzendutako laguntza
Eibar Txiki	Futbol Eskola Campusa Eibarko eta eskualdeko eskolekin egiten diren ekintzak
Kultura eta ingurune soziala	Eskualdeko babes eta ekimen sozialak Euskara Plana eta euskararekin lotutako ekintzak
Instituzionala	Ingurumen Plana - 2030 Agenda Berdintasun Plana Fundazioaren ekitaldi instituzionalak



24/25 denboraldian, hauek izan ziren nabarmendu beharreko ekimen nagusiak:

Futbol egokitua

SD Eibarrek desgaitasuna daukaten pertsonen zuzendutako bi talde dauzka Fundazioaren kirol egituraren. Alde batetik, garun paralisia daukaten pertsonentzako futbol taldea dago, eta, bestetik, adimen desgaitasuna daukatenentzako taldea. Taldeok liga desberdinetan jokatzen dute.

Adimen desgaitasuna daukaten pertsonen taldeak LaLiga Genuinen dihardu; ez da garaipenak saritzen dituen lehiaketa bat, baizik eta joko garbia, laguntasuna eta adiskidetasuna bezalako balioak.

Garun paralisia daukaten pertsonen taldeak errendimendu bikaina erakutsi du **Garun Paralisidunentzako Futbol Liga Nazionalean. 2022-2023** denboraldian **Lehen Mailako txapelketa** lortu zuen; **2023-2024** denboraldian maila altuari eutsi zion, **hirugarren postua** eskuratuta; eta **2024-2025 denboraldian ligako titulua** eskuratu zuen berriro. Arrakasta horiek gure kirolarien konpromisoa, diziplina eta gaitzitzeko espiritua islatzen dute, gure teknikarien eta erakundearen laguntza eta estrategiarekin batera.

Bi taldeak klubaren *staff* teknikoak monitorizatzen ditu, eta hobekuntza fisiko eta nutrizionalerako plan bat daukate.

Eibar Txiki

Campusa. Hurrei eskainitako ildo estrategikoaren barruan, SD Eibarren Campusa izan zen, beste urte batez, **2024/2025**

denboraldian parte-hartze handiena izan zuen jardueretako bat. Hiru aste iraun zuen, eta **eskualde osoko neska-mutikoe**k eduki zuten izena emateko aukera. Hala, Fundazioak bere ingurune hurbilenarekin daukan konpromisoa indartu zen, eta bere inpaktua Eibarrez haraindi zabaldu zen. 24/25 edizioan, Campusak bi jokaleku izan zituen berriro: Ipuruako zelai gehigarria eta Unbeko udal zelaia.

Kirol praktikaz gain, campusean klubaren balioetan prestatzeko proiektua ere garatu zen, horixe baita ekimenaren ardatz nagusia. Aurten, ikuspegi pedagogikoa ongizate digitala sustatzera, jokoarekiko mendekotasuna prebenitzera eta parte hartzaileen artean genero ikuspegia hobetzera bideratuta egon da, gai horiek funtsezkoak baitira garapen osasungarri eta arduratsu baterako.

Kultura eta ingurune soziala

Euskararen Baloia. Euskal kultura, eta bereziki euskara, babestu eta sustatzera bideratutako proiektua da hau; bai eta kluba Eibarko eta eskualdeko hurrei hurbiltzera bideratutakoa ere. Ipuruaren hondakinetan aurkitutako baloi bat protagonista duen ipuin baten bidez —Euskararen Baloia—, gure hizkuntzaren balioa eta garrantzia transmititzen zaie ikasleei. SD Eibarko lehen taldeetako jokalariek kontatzen dute istorioa, eta horrek interes eta lotura emozional handiagoa sortzen du ikasleen artean.

2024/2025 denboraldian, Eibar, Ermua eta Elgoibarko 11

KLUBAREN PROIEKTU SOZIALAK FUNDAZIOAK BIDERATZEN DITU, ETA INGURUNEAN BALIO ETA INPAKTU POSITIBOA SORTZEA DUTE HELBURU

ikastetxek hartu zuten parte proiektuan, eta sendotu egin zen eskualdean ezarritako hezkuntza ekimen gisa. Izan ere, ikastetxeek aurkezten dituzten proiektuak gero eta kalitate handiagokoak dira, eta horrek erakusten du hezkuntza komunitateak gero eta konpromiso handiagoz bereganatzen duela programa.

Proiektua Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailak finantzatu zuen, eta, horri esker, ikasleek jarduerarekin lotutako material pedagogikoak eskuratu ahal izan zituzten, hala nola baloi bat gelan edukitzeko eta jolasaren bidez euskararen eguneroko erabilera sustatzeko, eta baloiaren erreplika daukan giltzatak, hizkuntzarekiko konpromisoaren sinbolo gisa.

Gainera, 24/25 urtean futboleko euskarazko lehen hiztegia aurkeztu zen. Ikasgelan proiektua osatzeko eta kirolak euskaraz duen berariazko hiztegia indartzeko diseinatuta dago, ikasleengandik hurbil dauden testuinguruetan euskararen erabilera erreal eta naturala errazteko.

Erakunde plana

Plan honen babespean, 4. blokean aipatutako hainbat ekintza egin ziren, Fundazioaren gidaritzapean. Helburua da, alde batetik, barne kontzientziazioa eta, bestetik, zaleen kontzientziazioa.



9. HORNITZAILEAK ETA AZPIKONTRATISTAK

GRI 102-9 Hornidura katea

a. Hornitzaileak

Departamentu bakoitzak hornitzailearen azterketa egiten du (bideragarritasuna, kaudimena eta ospea); horretarako, beharrezkoa da hornitzailea identifikatzea eta *due dilligence* bat egitea homologatzeko.

- 24/25 denboraldian 31 *Due Diligence* egin ziren.

Klubari lotutako pertsona orok konpromiso adierazpen bat sinatu behar du, eta, bertan, hura irakurri eta ulertu duela eta bertan ezarritakoarekin bat egiteko konpromisoa hartu duela ziurtatu behar du. Horregatik, kode etiko honetan zehaztutako jarraibide eta arau guztiak bete behar ditu, bai eta kode horri dagozkion protokolo eta kontrol guztiak ere.

b. Tokiko garapena bultzatzea

GRI 203-2 Zeharkako inpaktu esanguratsuak

GRI 204-1 Tokiko hornitzaileetan egindako gastuaren proportzioa

Klubaren helburu nagusien artean, bere ingurunean inpaktu positiboa sortzea da bat, ez bakarrik kirol arloan, baita arlo sozial eta ekonomikoan ere. SD Eibarrek herriarekin eta eskualdearekin duen errotze handiaren jakitun, erakundeak modu aktiboan sustatzen du inguruko hornitzaileen kontratazioa.

Komunitatearekiko konpromiso horren ildotik, SD Eibarrek ahaleginak egiten ditu erabiltzen dituen ondasunak eta zerbitzuak, ahal den neurrian, Eibarko enpresetakoak izan daitezen, eta, bestela, eskualdeko edo inguruko herrietakoak, tokiko enpresa sarea garatzen eta indartzen laguntzeko.

10. BEZEROAK ETA KONTSUMITZAILEAK

AKZIODUNAK	ABONATUAK	ZALEAK	LAGUN TALDEAK
Akziodunen ataria accionistas.sdeibar.com	Abonatuen ataria abonados.sdeibar.com	E-maila sdeibar@sdeibar.com	Lagun talde berrientzako webgunea: www.sdeibar.com/aficion/penyas/como-crear-una-pena
E-maila accionistas@sdeibar.com	E-maila socios@sdeibar.com	Telefono zenbakia 943 201 831	Arduradunak: arrate.fernandez@sdeibar.com
Akziodunaren txokoa www.sdeibar.com/el-txoko-del-accionista	Telefono zenbakia 943 201 831	Bulegoetan: Ipurua kalea, 2, 20600 Eibar	Telefono zenbakia 943 201 831
Telefono zenbakia 943 201 831	Bulegoetan: Ipurua kalea, 2, 20600 Eibar	Sozietatearen egoitzarako posta arrunta: Ipurua kalea, 2, 20600 Eibar	
Bazkidearen arretarako buleg. Ipurua kalea, 2, 20600 Eibar	Sozietatearen egoitzarako posta arrunta: Ipurua kalea, 2, 20600 Eibar		
Sozietatearen egoitzarako posta arrunta: Ipurua kalea, 2, 20600 Eibar			



Reportinga



11. TXOSTEN HONI BURUZ

GRI 102-50 Txostenaren xede den aldia

GRI 102-54 Txostena estandarren arabera egin izanaren adierazpena

Jasangarritasun txostenari dagokion memoria honek SD Eibarrek 2024ko uztailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era egindako kudeaketa azaltzen du, eta 11/2018 Legean oinarritzen da. Txostena egiteko, Global Reporting Initiative-ren (GRI estandarrak) jasangarritasun memoriak egiteko gidan ezarritakoa hartu da kontuan.

Txosten honen bidez, klubak bere interes taldeen aurrean duen gardentasuna indartu nahi da, bai eta aipatutako ekitaldian enpresa jasangarritasunaren arloan egindako ekintzen berri eman ere. SD Eibarrek erantzukizun sozial korporatiboan lan egin nahi du, enpresaren esparru guztietan zabal dadin.

Dokumentu honetan ingurumen gaiak, enplegu ekimenak eta langileei buruzkoak, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka, negozio eredua, erakundeak aurre egin beharreko arriskuak eta klubaren politika sozialak jasotzen dira, besteak beste.



12. ZIURTAGIRIAK

ISO 37001:2016

"Eroskeriaren Aurkako Kudeaketa Sistemak" delakoa nazioarteko arau bat da, eroskeriari aurre egin nahi diona eta enpresa kultura etikoa sustatzen duena. Horrez gain, akziodunei eta bezero izan daitezkeenei erakusten die kluba eroskeriaren aurkako jarduerekin –mundu osoan aitortuak– konprometituta dagoela. Ez bakarrik bere eragiketen barruan, baita balio kate osoaren transakzioetan ere.

UNE19601:2017

"Compliance penala kudeatzeko sistema". Arau honen helburua da legedia betetzetik harago joatea, klubari delituak prebenitzen eta arrisku penala murrizten laguntzea, eta, horrekin batera, etikaren eta betetze kulturaren alde egitea.

13. INFORMAZIO FISKALA

GRI 201-1 Sortutako eta banatutako zuzeneko balio ekonomikoa

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundirako bildutako dirua:

DENB.	PFEZ	BEZ	IS	GUZT.	DENB.	PFEZ
20/21	11.481.234,30 €	9.464.665,32 €	987.353,22 €	21.933.252,84 €	20/21	1.459.020,65 €
21/22	3.066.523,24 €	971.736,01 €	*	4.038.259,25 €	21/22	1.273.396,47 €
22-23	3.131.039,04 €	1.509.877,06 €	*	4.640.916,70 €	22-23	1.296.306,04 €
23-24	2.730.323,51 €	697.661,83 €	**	3.427.985,34 €	23-24	1.570.452,49 €
24-25	2.537.045,28 €	512.577,23 €	**	3.049.622,51 €	24-25	1.615.787,02 €

* IS Neutroa, galerengatik



14. GRI EDUKIEN AURKIBIDEA

GRI 102-55 GRI edukien aurkibidea

EREMUA	EDUKIAREN KOKAPENA	GRI ESTANDARRA
Presidentearen gutuna	Presidentearen gutuna atalean aztertua	GRI 102-14 Erabakiak hartzeko ardura duten goi mailako exekutiboen deklarazioa
Materialtasuna	2. atalean aztertua Materialtasunaren analisia	GRI 102-21 Interes taldeei kontsulta egitea ekonomia alorreko, ingurumeneko eta gai sozialei buruz
	2.a atalean aztertua Interes taldeak	GRI 102-40 Interes taldeen zerrenda
	2.b atalean aztertua Materialtasunaren analisia	GRI 102-29 Ekonomia, ingurumen eta arlo sozialeko inpektuen identifikazioa eta kudeaketa GRI 102-47 Gai materialen zerrenda
Negozio eredua	3.a atalean aztertua Erakundearen profila	GRI 102-1 Erakundearen izena GRI 102-5 Jabetza eta forma juridikoa
	3.a.I atalean aztertua egoitza soziala	GRI 102-3 Egoitzaren kokapena
	3.a.II atalean aztertua Jarduerak	GRI 102-2 Jarduerak, markak, produktuak eta zerbitzuak
Arriskuen analisia	3.e atalean aztertua	GRI 102-15 Inpaktu, arrisku eta aukera nagusiak

EREMUA	EDUKIAREN KOKAPENA	GRI ESTANDARRA
Pertsonen kudeaketa	5. atalean aztertua	GRI 102-8 Enplegatuei eta beste langile batzuei buruzko informazioa
	4. atalean aztertua Egitura eta organigrama	GRI 102-18 Gobernantza egitura
	5.a.II atalean aztertua	GRI 102-35 Ordainsari politikak
	5.b atalean aztertua	GRI 404-1 Prestakuntza orduen batez bestekoa urtean, enplegatu bakoitzeko GRI 404-2 Enplegatuen gaitasunak hobetzeko programak eta trantsizioan laguntzeko programak GRI 404-3 Jardunaren eta garapen profesionalaren aldizkako ebaluazioak jasotzen dituzten enplegatuen ehunekoa
	5.a.II atalean aztertua	GRI 401-2 Aldi baterakoak edo lanaldi partzialekoak ez diren lanaldi osoko langileentzako prestazioak
	5.e atalean aztertua	GRI 403-1 Lanean osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistema
Barne kontrola eta zintzotasun korporatiboa	4. atalean aztertua	GRI 102-7 Erakundearen tamaina
	6. atalean aztertua	GRI 102-16 Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide arauak
	6.b atalean aztertua	GRI 102-17 Aholkularitza mekanismoak eta ardura etikoak
	6.e - f atalean aztertua	GRI 205-1 Ustelkeriarekin lotutako arriskuetaarako ebaluatutako eragiketak



EREMUA	EDUKIAREN KOKAPENA	GRI ESTANDARRA
Ingurumen politika	7.a atalean aztertua	GRI 302-1 Erakunde barruko energia kontsumoa
	7.b atalean aztertua	GRI 305-1 BEGen zuzeneko emisioak (1 irismena) GRI 305-2 BEGen zeharkako emisioak energia sortzean (2 irismena) GRI 305-3 BEGen zeharkako beste emisio batzuk (3 irismena)
	7.d atalean aztertua	GRI 307-1 Ingurumeneko legeak eta arauak ez betetzea
Hornitzaileak eta azpikontratatistak	10. atalean aztertua	GRI 102-9 Hornidura katea
	10. atalean aztertua	GRI 204-1 Tokiko hornitzaileetan egindako gastuaren proportzioa GRI 203-2 Zeharkako inpaktu ekonomiko esanguratsuak
Politika sozialak	9. atalean aztertua	GRI 203-2 Zeharkako inpaktu ekonomiko esanguratsuak GRI 413-1 Tokiko komunitatearen parte hartzea duten eragiketak, inpaktuaren ebaluazioak eta garapen programak
Txostena	11. atalean aztertua Txosten honi buruz	GRI 102-54 GRI Txostena estandarren arabera egin izanaren adierazpena GRI 102-54 Txostena estandarren arabera egin izanaren adierazpena
Informazio fiskala	13. atalean aztertua	GRI 201-1 Sortutako eta banatutako zuzeneko balio ekonomikoa
Aurkibidea GRI edukia	14. atalean aztertua	GRI 102-55 GRI edukien aurkibidea

